



**LEGAZPIKO
UDALA**



AGENDA 21eko LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2006/06/08	Ordua eta iraupena: 18:30; ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
-----------------------------	--	--------------------------------------

Hauxe da bizitza: bi urrats aurrera eta bat atzera.
Oriol Bohigas

Martxoaren amaieran, fase berri bati eman genion hasiera Legazpiko Agenda 21eko parte-hartze foroan. Hauxe izan zen gure erronka: udalerrian mugikortasun iraunkorrari buruz lau saio egitea. Lantalde horren helburua proposamen zehatzak adostea izan zen eta proposamen horiek bi modutara bidera zitezkeen: edo berrikusten ari diren Arau Subsidiarioetan sartu (epe luzera) edo urteko inbertsio- eta mantentze-planetan sartu (epe motzera).

Zuen guztion ahalegin eta konpromisoarekin, gure helburua aise gainditu dugu; eta, bi urrats aurrera egin dugula esan dezakegu.

Horrexegatik, mila esker guztioi!

Gaur, hemen bildu gara...

28 pertsona. Talde polita osatu dugu eta, lanerako eta aurrera egiteko gogoia duen taldea da. Ezinbesteko baldintza gure bideari ekiteko...

Izen-deitura	Ordezkaritza:	Izen-deitura	Ordezkaritza:
• Arantxa Segurola	Haztegi Ikastola	• Maite Gonzalez	Legazpiarra
• Kizkitza Oria	ILINTI elkarte	• Maite Lazaro	Legazpiarra
• Agustina Romaratezabala	Eiluz	• Fernando Agirre	Legazpiko Udala
• Manuel Fernández	Buztintegi	• Inma Hernandez	Legazpiko Udala
• Fernando Martínez de Albeniz	Legazpiarra	• Josune Macaya	UGGASA
• Anastasio Clavo	Bellota	• Montse Vallejo	Legazpiarra
• Lurdes Etxaniz	Eiluz	• Glori Mez. de Guereñu	Legazpiko Udaleko zinegotzia
• Joxan Auzmendi	CEIDA	• Iñaki Mendia	Legazpiko Udaleko zinegotzia
• Juan Karlos Altzelai	Harri Urdin	• Rafael Gomez	Buskabaso
• Juan Miguel Urrutia	Legazpiarra	• Emilio Camara	Buskabaso
• Floren Gutierrez	Legazpiarra	• Juan Ramon Larrañaga	Legazpiko Alkatea
• Javier Iraeta	GKN Driveline Legazpi, S.A.	• Junkal Fernandez	Legazpiarra
• Jose Luis Cid	Legazpiko Udaleko zinegotzia	• Zorione Aierbe	Prometea, SC
• Bixente Garmendia		• Iciar Montejo	Prometea, SC

OHARRA: Gainera, saioa hasi aurretik Koldobike Olabide eta Junkal Fernandez herritarren proposamenak jaso ditugu. Ekarpen horiek saioan jasotako ekarpenei gehitu dizkiegu. Eskerrik asko!



LEGAZPIKO
UDALA



AGENDA 21eko LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2006/06/08	Ordua eta iraupena: 18:30; ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

Koka gaitezen...

Gogoan izango duzue, joan den maiatzaren 18an egin genuen azkeneko bileran Legazpin oinez nahiz bizikletaz egin daitezkeen ibilbide nagusien sarea zehaztu genuela (A planoan jaso ditugu ibilbide horiek). Ibilbideak oinez nahiz bizikletaz egin daitezke eta udalerriko interesgune desberdinak elkar lotzen dira.

Mugikortasun iraunkorraren ikuspegitik, zein da gure erronka? Sare hori egingarria izan dadila eta ibilbide horiek oinez nahiz bizikletaz trabarik gabe egin daitezela lortzea. Beraz, eremu publikoa berrantolatu beharra dago, modu horretan motordun garraioa (automobila batik bat) eta ez-motorduna (oinezkoak eta bizikletak) elkarrekin bizi daitezen.

A planoan: Legazpiko puntu nagusienak elkar lotzen dituen ibilbide-sarea. Taldearen ustez, ibilbide horiek oinez nahiz bizikletaz egiteko aukera izatea lehentasunezko gaia da.



AGENDA 21eko LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2006/06/08	Ordua eta iraupena: 18:30; ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

Gaurko lana: "sarea" zehaztu ondoren, zein tratamendu emango diegu oinez nahiz bizikletaz egiteko ibilbideei?

Gaur urrats bat gehiago eman nahi izan dugu. Horretarako, partaideen artean bi talde osatu ditugu:

- Talde batek **oinezkoaren ikuspegitik** abiatu da eta oinez egiteko ibilbide-sarea aztertu du. Lan horretan ondoko galderei erantzun behar izan dizkie taldeak:
 - Oinezkoek bakarrik erabili ahal izango dituzten zein bide-tarte proposatuko ditugu (beraz, zamalanetarako izan ezik, trafikora itxita egongo diren bide-tarteak)?
 - Zein bide-tarte izan daitezke guztiek erabiltzeko modukoak?
 - **Zein bide-tarte mantenduko dira berdin baina bertako hirigintza hobetuz**, hau da, espaloiak zabalduz eta oinezkoentzat egon daitezkeen traba edo oztopoak kenduz?



Nahastu ez gaitezten, argitu dezagun zertaz ari garen...

- **%100 oinezkoentzat diren bide-tarteak:** zamalanetarako izan ezik, ibilgailuentzat itxita egongo diren bide-tarteak. Oinezkoek eta bizikletariak dute lehentasuna. Bide-tarte horietan ezin da aparkatu.
- **Guztiok erabiltzeko moduko bide-tarteak:** eremu horietan espaloiak eta galtzada altuera berdinean daude (plataforma bakarra). Ibilgailuak ibil daitezke bide-tarte horietatik baina abiadura orduko 20-30 kilometrora dago mugatuta; oinezkoek eta bizikletariak dute lehentasuna. Bide-tarte horiek guztiek erabil ditzakete, oinezkoak nahiz bizikletak nahiz ibilgailuak, baina lehenengo biek dute lehentasuna. Zenbait kasutan, segurtasuna bermatuta gera dadin, alboetan zoruko marren bidez bereiz daitezke espaloiak (zuhaixkak edo bestelako elementuak jarritz). Bide-tarte horietan ezin da, hasiera batean, aparkatu (gauz aparkatzea onar daiteke).
- **Erraz erabil daitezkeen bide-tarteak, egungo egitura mantenduz:** egungo egitura mantentzea proposatzen ditugun bide-tarteak (hau da, ibilgailuak bertatik igaro daitezke, galtzada espaloia parera igo gabe...), baina hirigintza arloan hobekuntzak proposa daitezke, irisgarritasuna sustatzeko, oztopo arkitektonikoak kentzeko...

- Bigarren taldeak gauza bera egin du baina **bizikletan ibiltzen diren herritarren ikuspegitik**. Talde honek ondoko proposamenak egin ditu:
 - **Bidegorria jar daitezken bide-tarteak**, bizikletak bakarrik erabiltzeko tarteak.
 - **Guztionez izan daitezkeen bide-tarteak;** tarte horietan bizikletek oinezkoekin eta autoekin konpartituko dute lekua (lehentasuna ez motodunek izango lukete, hau da, oinezkoek eta bizikletariak).
 - **Bizikletek eta ibilgailuek konpartitu ditzaketen bide-tarteak** (beraz, ez litzateke egungo hiri-egitura aldatuko); seinale horizontalak jartzeko aukera egon daiteke...



LEGAZPIKO
UDALA



ACTA DEL FORO-GRUPO DE TRABAJO DE AGENDA 21
Agenda 21 de Legazpi

Fecha: 08/06/2006	Hora y duración: 18:30 horas, 1 hora y media	Lugar: Ayuntamiento de Legazpi
----------------------	---	-----------------------------------

Emaizta?

Hasteko, oinezkoei eta bizikleta erabiltzen duten herritarrei dagokien proposamen orokorra: **talde batek Legazpiko ibilgailuen trafikoaren zirkulazioa aldatzeko eta berrantolatzeko aukera aztertzea proposatu du**; norabide bakarreko bideak sor daitezke eta, beraz, ibilgailuek erabiltzen duten eremuak (galtzadak) murriztuko lirateke. Hori egin badaiteke, kaleak berrantolatu eta haien hirigintza-egitura aldatzea proposatzen da:

- Espaloi zabalagoak;
- Leku bereziak bizikletan ibiltzeko;
- Aparkalekuak;
- Eta galtzada, norabide bakarrekoa, ibilgailuentzat.

Ondoren, proposatu diren bestelako aukerak zehazten ditugu.

• Oinezkoaren ikuspegitik, ondoko proposamenak egiten ditugu:

- **Nafarroa kalea** oinezkoentzat bakarrik izan dadila.
- **Laubide kalean guztiontzat izan daitekeen eremua sortzea** (aparkatzeko lekua nola geldituko litzatekeen aztertuz).
- **Irisgarritasuna hobetzea**, egungo egitura mantenduz, batik bat leku hauetan:
 - Santikutz kalearen eta Latxartegi parkearen artean dagoen bide-tartean eta Patrizio Etxeberria kalean jarraituz. Puntu honetan proposamen zehatza egin da: Mirasol etxearen eta Santa Cruz egoitzaren artean dagoen horma botatzea eta horrek bertan dagoen espaloia zabaltzea ahalbidetuko luke.
 - Saturnino Telleria kalearen eta Industrialdearen artean dagoen bide-tartean (espaloi bat eginez).
- **Auzoetako oinezkoen pasabideak hobetzea** (adibidez, Itxaropen, San Martin, San Inazio ...).
- **Kale Nagusian egitea proposatu diren aukera desberdinak aztertzea**. Kale horri dagokionez, taldea ez dator bat eta zalantzak daude oinezkoentzat bakarrik egokitzea komeni den edo ez erabakitzerakoan. Bertako aparkalekuak dira eztabaidagai; puntu hori oso kontutan hartzekoa da aukerak aztertuko direnean.

ACTA DEL FORO-GRUPO DE TRABAJO DE AGENDA 21
Agenda 21 de Legazpi

Fecha: 08/06/2006	Hora y duración: 18:30 horas, 1 hora y media	Lugar: Ayuntamiento de Legazpi
----------------------	---	-----------------------------------

B Planoa. Legazpin oinezkoentzako ibilbide-sarea osatzeko proposamena.



- Oinezkoentzat %100.
- "Guztiontzat bide-tarte" bihurtzeko.
- Hirigintzaren ikuspegitik Lehenbailehen hobetu behar diren tartekak ...
- Kale Nagusia, aukera desberdinak aztertu behar dira...

• Bizikletarien ikuspegitik, ondoko proposamenak egiten ditugu:


- **Bidegorria edo leku berezi bat sortzea** (benetako aukerak daudenean beti ere), galtzadari lekua irabaziz (eta, beraz, gaur egun ibilgailuek erabiltzen duten lekua). Non?:
 - **Urtatzatik Aizkorri kalera eta kiroldegira doan ibilbidean eta, jarraituz gero, Mirandaolara, Telleriartera, Brinkolara, ... doan bide-tartean.** Urdinez margotu dugu eta 1 zenbakia ezarri diogu B planoan.
Telleriarte auzoaren, Brinkola auzoaren eta Mirandaola parkearen artean dagon ibilbidearen erabilera argitu eta antolatu beharra ikusten da. Gainera, COELekeo biribilgunera iritsi aurretik, Txorronea parean trafikoa semaforoan bidez arautzea proposatu da.
 - Brinkola, Telleriarte eta Mirandaola, Legazpiko hirigunearekin, industrialdearekin eta Zumarragaraino doan bidegorriarekin lotzen duen ibilbidean. Urdinez margotu dugu eta 2 zenbakia ezarri diogu B planoan. Kasu honetan, industrialdetik igaro den eta jabego pribatukoa den bide-tartearekin zer egingo den erabakitzeke dago (tarte hori puntudun zirkulu batekin zehaztu dugu planoan). Taldearen iritziz inportantea da Legazpiko hirigunea Zumarragarekin lotzea baina gaur egun betetzen ez diren segurtasun-neurriak betez.
- Bestetik, Legazpin gehien erabiltzen den ibilbidea (Urtatzatik, Santikutz kalea eta Patrizio Etxeberria kalea zeharkatu eta kiroldegiraino doan bidea) zehazteko beharra dagoela eta horretaz hausnartu behar dela uste dugu. Ibilbide horretan bidegorria egokitu daiteke edo denontzako izango den bidea ezarri (aztertu egin beharko da).
- Gainerako bide-tarteetan ibilgailuek erabiltzen duten eremuak bizikletek ere erabiltzeko aukera izan dezatela bultzatu eta erraztu behar da, beti ere segurtasuna bermatuz.

ACTA DEL FORO-GRUPO DE TRABAJO DE AGENDA 21
Agenda 21 de Legazpi

Fecha: 08/06/2006	Hora y duración: 18:30 horas, 1 hora y media	Lugar: Ayuntamiento de Legazpi
----------------------	---	-----------------------------------

- Hirigunea eta industrialdea elkar lotzeko alternatiba egokia aurkitu behar da.
- **Urbanizazio berriak eta garapen berriak** egingo direnean bizikletaren ikuspegia kontutan izatea eta haren erabilera bultzatzea eskatzen dugu, egun zehaztuko den bide-sareari jarraipena emanez.

C Planoa. Legazpin bizikletaz egiteko ibilbideen proposamena.



Bidegorria edo leku berezia egokitzeko bide-tarteak.

Ibilgailuek eta bizikletek konpartituko dituzten bide-tarteak.

Gainera, taldeak kaskoa erabiltzeko ohitura landu beharra dagoela uste du; modu berean landu beharko litzateke oinezkoen eta bizikletarien arteko errespetua eta elkarbizitza.

Eta guzti honekin, zer?

Udaletxeko Hirigintza sailean Legazpiko Arau Subsidiarioen Aurrerakina lantzen ari dela kontutan izanik, gaur hemen egin diren proposamenak haiei bidaltzea erabaki dugu, beraiek aztertu eta hausnartu ondoren, taldeari itzultzeko eskatuz.

Udalaren asmoa Aurrerakina irailean onartzea da. Beraz,

- **Uda igaro eta gero, irailaren hasieran bidaliko dizuegu deialdi berria, agiria gertutik ezagutzeko eta ustez eztabaidatu behar diren gaiak eztabaidatzeko.**

Gainera, azkeneko urteotan egin den legez, irailaren 22 inguru, Legazpin **Mugikortasunaren Astea** ospatuko dugu eta iraileko bileran aste horretan egin daitekeena proposatu dezakegu. Oraingoan, ideien bat edo beste badugu (adibidez, oinez edo bizikletaz, zehaztu ditugun ibilbideetako bat egitea,...); baina denek artean seguru ideia mordoa bilduko ditugula!



**LEGAZPIKO
UDALA**



ACTA DEL FORO-GRUPO DE TRABAJO DE AGENDA 21
Agenda 21 de Legazpi

Fecha: 08/06/2006	Hora y duración: 18:30 horas, 1 hora y media	Lugar: Ayuntamiento de Legazpi
----------------------	---	-----------------------------------

Ordurarte... mila esker eta uda ona pasa!

Pozik gaude lana gogoz eta asmo onez egin dugulako eta martxoan proposatu zen lantaldeak egin dituen lau bilerak probetxuzkoak izan direla uste dugu. Horrexegatik, eskerrik asko guztioi eta ondo igaro dezazuela uda. Bueltan izango dugu elkarren berri!